

Oinarrizko metrologia

- Iraupena: 30 ordu
- Egutegia:
2025-01-27 - 2025-02-11
- Ordutegia:
al, ar, az, og | 17:00 - 20:00
- Hizkuntza: Gazteleraz
- Tokia: IMH (Elgoibar)
- Prezioa: %100 subentzionatuta

Nori zuzenduta

- Fabrikazioaren eta kalitatearen alorreko profesionalak, kalitatea egiaztatze eta kontrolatzeko lanak egin behar dituztenak.

Helburuak

- Metrologiaren oinarrizko kontzeptuak definitzea eta aplikatzea.
- Kontrolatu beharreko ezaugarriaren arabera, batez besteko tresnak identifikatzea eta hautatzea.
- Neurketa-tresnak erabili aurretik mantentzea, egiaztatzea eta doitzea..
- Batez besteko tresnekin neurketak eta irakurketak egitea, tresnaren ziurgabetasuna kontuan hartuta eta langileak egin ditzaken akatsak saihestuta..

Edukiak

- Oinarrizko kontzeptuak:
 - metrologia, ziurgabetasuna, heina, hautematea, kalibratzea, egiaztatzea, doitzea, zehaztasuna,...
 - Perdoi dimentsionalen, gainazalen eta geometrikoen oinarrizko nozioak.
 - Tolerantziaren eta ziurgabetasunaren arteko lotura.
- Neurtzeko tresnak (konbentzionalak, erlojuzkoak edo digitalak):
 - Kalibrea/oina, sakonera-kalibrea eta trazu-erregela bertikala.
 - Kanpoaldeko eta barrualdeko mikrometroa (2 eta 3 puntakoa). Euskarriak.
 - Angelu transportadorea eta goniometroa..
 - Patroiak, muga-kalibreak (pasa – ez pasatu), egiaztapen-mahaiak, sinuen mahaia, puntuen arteko euskarria...
 - Neurketa diferentzialeko tresnak: erloju konparatzaileak eta alesometroa. Euskarriak eta tresnak.
 - Profilen proiektagailua.
- Neurketa-tresnak hautatzeko irizpideak, ziurgabetasunaren eta kontrolatu beharreko ezaugarriaren arabera.
- Neurketa-tresna bakoitzerako berariazko oinarrizko mantentze-lanak.
- Neurketa-tresna bakoitza egiaztatzea eta doitzea.

- Neurketa-prozedura, neurketa-tresna bakoitzaren errore bereizgarriak minimizatuz:
 - Distantziak neurtzea.
 - Kanpoko eta barruko angeluak eta konoak neurtzea.
 - Harien neurria: kanpoko diametroa, barrualdekoa eta erdikoak, hari-neurria, saihtsen arteko angelua...
 - Perdoi geometriko batzuk instrumentu konbentzionaletan neurtzea.
- Neurketa-tresnetan neurketa irakurtzea.
- Irakurketa bat onartzeko irizpidea, ezaugarriaren tolerantziaren eta tresnaren ziurgabetasunaren arabera..

Aurrez jakin beharrekoak


- Planoak interpretatzeko oinarrizko nozioak izatea komeni da.

Ikastaro honen data guztiak

Egutegia	Ordutegia	Hizkuntza	Prezioa	Tokia
2025-05-05 2025-05-20	al, ar, az, og 17:00 - 20:00	Gaztelera	%100 subentzionatuta	IMH (Elgoibar)

Izena emateko eta informazio gehiagorako

IMH: 943 74 82 66 www.imh.eus



Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Lanbide / Langileak

Lanbideri eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lana eta Enplegu Sailari finantzazioa eskatu zaien ikastaroak, lehentasunez EAEko langilentzat.

Image https://www.imh.eus/es/cursos/destacados-portada/expediente/lanbide-1.jpg/@@images/58a90263-6de1-4c45-	Image https://www.imh.eus/es/cursos/destacados-portada/expediente/con-org-y-sin-dpto-horizontal-color3-1.jpg/@@images/c6b5d86d-21a9-4f54-
--	--

aa0e-2c47fec4f01.jpeg not resolvable

8efd-be65d4cf475d.jpeg not resolvable

<https://www.imh.eus/eu/ikastaroak/metrologia/oinarrizko-metrologia>